

ESPAINIAKO KONSTITUZIOA

Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua aldaketa, Gorte Nagusiek onartua, Diputatuen Kongresuak 2024ko urtarrilaren 18an egindako ezohiko osoko bilkuran, eta Senatuak 2024ko urtarrilaren 25ean egindako ezohiko osoko bilkuran. Bere Maiestate Erregek berronetsia 2024ko otsailaren 15ean.

HITZAURREA

1978ko Espainiako Konstituzioak pertsonaren duintasuna eta nortasunaren garapen askea kotsakratzen ditu, gure Zuzenbide-Estatu sozial eta demokratikoaren giltzarri gisa. Konfigurazio horren irudikapen zehaztutako bat haren 49. artikulua da, desgaitasuna duten pertsonen babesari bereziki eskainia.

Manu horrek, bere garaian, Espainia kolektibo horren babesaren abangoardian kokatu zuen, berriaz aitortzen baitzitzaizen Konstituzioaren I. Tituluan aurreikusitako eskubide guzti-guztiak, eta botere publiko guztiei zuzendutako babes-agindu bat ezarri baitzuen. Bestalde, artikulua horrek eragin nabarmena izan du botere publikoaren jardunean, eta legegintza-garapen handia izan du.

Azken urteotan, desgaitasuna duten pertsonen babesa Nazioarteko Zuzenbideak bultzatu du, eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren edukia du ardatz, New Yorken 2006ko abenduaren 13an egina, Espainiak 2007ko abenduaren 3an berretsia eta 2008ko maiatzaren 3tik indarrean dagoena.

Azken urteotan, barne-legeria, bai Estatukoa, bai autonomikoa, nazioarteko araudira egokitu da. Eginkizun hori, estatu-mailan, bereziki abuztuaren 1eko 26/2011 Legean, desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziara egokitzeari buruzkoan, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean, arazoaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoan, gauzatu da. Berrikiago, abenduaren 5eko 2/2018 Lege Organikoan, Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzekoan, desgaitasuna duten pertsona guztien sufragio-eskubidea bermatzeko, eta legedi zibila eta prozesala erreformatzen duen ekainaren 2ko 8/2021 Legean, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko.

Aldi berean, desgaitasuna duten pertsonen inguruan bildutako gizarte zibilak Konstituzioaren 49. artikulua gizarte-errealitate eta nazioarteko araudira egokitzeko beharra planteatu die botere publikoei. Esparru horretan, funtsezko garrantzia du ordezkaritza-erakundeek egindako lanak, Konstituzioak eta legeek botere publikoei ezartzen dizkieten betebeharrak betetzeko funtsezko zeregina izaten baitute. Era berean, Espainiako gizartearen baitan argi eta garbi aurrera egiten du desgaitasuna duten emakumeen eta adingabeen beharrezkoen aitortzak.

Deskribatutako testuinguruan, argi geratzen da 1978ko Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua jatorrizko idazketa, konstituziogileak desgaitasuna duten pertsonen eskubide eta askatasunetik konpromisoa islatu zuena, eguneratu egin behar dela hizkuntzari eta edukiari dagokienez, bai nazio mailan, bai nazioartean, kolektibo horren babesa inspiratzen duten balioak islatzeko asmoz.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da Konstituzioaren 49. artikulua erreformatzea, manu hori erreferentziazkoa izan dadin berriro ere Espainian desgaitasuna duten pertsonen eskubideen babes eta sustapenean.

Artikulu bakarra.

Espainiako Konstituzioaren 49.artikula modu honetara geratuko da idatzita:

«49. artikulua.

1. *Desgaitasuna duten pertsonen askatasun- eta berdintasun-baldintza erreal eta eraginkorretan baliatzen dituzte Titulu honetan aurreikusitako eskubideak. Legez arautuko da baliatze horretarako beharrezkoa den babes berezia.*

2. *Botere publikoek desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonal osoa eta gizareratzea bermatuko dituzten politikak bultzatuko dituzte, unibertsalki eskuragarriak diren inguruneetan. Era berean, haien erakundeen parte-hartzea sustatuko dute, legeak ezartzen duen moduan. Bereziki erantzungo zaie desgaitasuna duten emakumeen eta adingabeen beharrian espezifikoiei.»*

Azken xedapen bakarra.

Espainiako Konstituzioaren 49.artikuluaren aldaketa hau «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta egun berean sartuko da indarrean. Espainiako gainerako hizkuntzetan ere argitaratuko da.